

Uruguaiako etorkinak eta aplikagarri zaien errealitye arauemailea: zenbait ohar kritiko

Oscar Abalde Cantero

EHUKO irakaslea

Azken urteetan Latinoamerikako hainbat herrialdetako biztanleek aurkeztutako lan- eta erresidentzia-eskaeren inguruan lanean etengabe aritu izan dira espainiar auzitegiak. Horietako eskaera askok XIX. mendetik zetozentzioarteko kooperazio- eta adiskidetasun-hitzarmenak zituzten oinarri. Hitzarmen horiek estatuek elkarrekiko hainbat eskubideren aurrezagutzaz zuten helburu, gehienetan eskubide horiek bertako herritarrekiko berdintasun mailan onartuz. Bere garaian hitzarmen horien aplikazioan espainiar emigrantei eskubideok modu zabalean aitortu bazitzaizkien ere, egun egoera bestelakoa dugu migracio-fluxuak noranzkoz aldatu baitira. Errealitate honetan Latinoamerikako etorkin guztien egoera ez da bera eta bereziki konplexua dugu Uruguaiako biztanleen egoera; izan ere, azken urteotan ez auzitegiek ez botere politikoek ez dute garbi izan zein den haiei aplikatu beharreko zuzenbidea. Artikulu honen helburua, oraindik erabat argitu gabe dagoen egoera korapilatsu honetara argi pixka bat ekartzea izango da.

The Spanish tribunals these last years have had to manage with a great amount of job and residence permit petitions from citizens all over Latin America. Most of these lawsuits were based on a series of cooperation and friendship treaties still alive from the XIX century. These treaties sought the mutual acknowledgement between those states of some rights on equal terms of the own citizens. These rights which once had been fully acknowledged to the Spanish emigrants nowadays follow a different reality when the migratory-flows have changed their direction towards Europe. Into this reality, every Latin American immigrant's situation is not the same and especially the citizens from Uruguay know a very complex situation when neither the tribunals nor the politic branches had any clear answer about the law applicable to them. The aim of this article is to throw some light into this complicate reality still far from been solved.

1. Egoera ulertzeko zenbait egitate lagungarri

Azken urte hauetan espainiar auzitegiek aurrera eraman duten lanak orain gutxi arte espainiar gizartearentzat isilean mantentzen zen gatazka bat aditzera eman du. Gatazka hori dugu Espainiako Erreinuak eta Uruguaiko EKialdeko Errepublikak sinatutako 1870. urteko Ezagutze, Bake eta Adiskidetasun Tratatuaren ote dagoen zalantzaren inguruan sortu dena. Hitzarmen horren xedea elkarrekiko zenbait eskubideren ezagutza zen, modu horretan nazio faboratuen kondizioa gauzatzuz edo gutxienez antzeko egoera bati atek erekiz. Hitzarmen horren 8. artikuluari jarraiki:

Los ciudadanos de la República en España y los súbditos españoles en la República Oriental del Uruguay, **podrán ejercer libremente** sus oficios y profesiones, poseer, comprar y vender por mayor y menor toda especie de bienes y propiedades, muebles e inmuebles; extraer del país sus valores íntegramente; disponer de ellos en vida o por muerte, y suceder en los mismos por testamento o abintestato, **todo con arreglo a las leyes del país, en los mismos términos y bajo iguales condiciones y adeudos que usan o usaren los de la nación más favorecida.**¹

Denbora luzean zehar, bertan jasotako eskubideak momentu ez hain oparoetan Uruguaira joandako espainiar etorkinei modu zabalean praktikara eramatea onartu zitzaien. Hitzarmen horrek, egun, atentzio berria sortu du, oraingoan berriz, amerikar kontinentetik Espainiarako bidean gauzatzen diren migrazio-fluxuak direla eta. Espainiako autoritateek hitzarmen hau Uruguaiko herritarrei ez aplikatzearen jarrerak erantzun sendoa piztu du uruguaitarren aldetik, bai arlo politikora bai judizialera zabalduz, bi aldeen gobernuetarren tratatu horren aplikazioa gauza dezaten beharrezko gestioak egin ditzaten eskatuz eta, aldi berean, auzitegietan eskubide horiek galduz.

Auzitegiek azken urteotan aurrera eramandako lanak finkatu duen jurisprudencia-errealityeark gatazka honen konplexutasuna azaleratu du. Eta hau horrela izan da nahiz eta gatazka honen jatorrian Auzitegi Gorenaren beraren sententzia bat abiapuntu izan. Auzitegi horren 2002ko urriaren 10eko sententziak ondorioztatzen zuenez 1870. urteko Ezagutze, Bake eta Adiskidetasun Tratatuari zegokionez, Txilerekin (1958ko maiatzaren 24koa, urte bereko urriaren 28ko instrumentuaren bitarte berretsitakoa) eta Perurekin (1959ko maiatzaren 16koa, urte bereko abenduaren 15eko instrumentuaren bitarte berretsitakoa) sinatutako antzeko tratatuai aplikatutako jurisprudentzia-irizpide berdintsuak aplikagarri zitzaizkion, ondorioa izanik, bertan jasotakoa «una remisión específica del contenido propio, y no sólo una abstracta remisión a la legislación de los Estados firmantes» bezala ulertzea. Horrela, dagoeneko sala horrek aurretik finkatutako jurisprudentzia bati jarraiki², tratatu horietan espainiar legedira egindako igorpenak jarduera horien (lana, erresidentzia,...) egikaritzan ondorioak izan zitzakeen baina inola ere ez Espainian lan egiteko eskubidearen titulartasunean, «amplia y suficientemente recogido en los Convenios con Chile y Perú, y también en similares términos por

1. Letra Iodiak nire kontu artikulu osoan zehar.

2. Ikus, Auzitegi Gorenaren 1990eko maiatzaren 21eko Sententzia (Aranzadi, RJ 1990, 4003), 1991ko otsailaren 23ko Sententzia (Aranzadi, RJ 1991, 1364), 1992ko otsailaren 25eko Sententzia (Aranzadi, RJ 1992, 1034) eta 1995eko abenduaren 22ko Sententzia (Aranzadi, RJ 1995, 9684).

el Convenio con Uruguay». Honek guztiak estatu horietatik zetozen herritarrei espiniar herritarrekin berdintasun maila batean mota guztietako irabazizko jarduerak aurrera eramateko atea irekitzea suposatzen zuela zirudien.

Horren aurrean, 2004. urtean zehar autonomia-erkidegoetako Auzitegi Nagusiek erabaki horren inguruan egindako ulermenak ez zen aurrekoarekin bat etorriko, ulertuz 1870eko Tratatua ezin zela modu isolatu batean kontuan hartu, gai beraren inguruan ondoren onartutako eta indarrean jarraitzen zuen beste hitzarmen sorta bat alde batera utzita. Batez ere, auzitegi horien ikuspuntutik, azken hitzarmen horien edukiak arauketaren erabateko iraulketa suposatzen zuenean³. Horrela, alde batetik, Bisatuen Desagerrazte Akordioak, 1961eko abenduaren 18ko Nota Elkartrukean jasotakoak (BOE, 150. zk., 1982ko ekainaren 24koa, 17333. or.), bere 3. artikuluan jasotzen zuenez, «la supresión de visado — laurogeita hamar eguneko gehienezko epe baterako — no exime a los ciudadanos uruguayos que se dirijan a España de la obligación de observar las Leyes y reglamentos locales, concernientes al ingreso, permanencia y al establecimiento de extranjeros» eta bere 5. artikuluan, «las concesiones de visados que autoricen el establecimiento definitivo en España, o por un periodo superior a los tres meses, quedarán sujetas a las normas españolas en vigor». Bere aldetik, 1992ko uztailaren 23ko Spainia eta Uruguai arteko Kooperazio eta Adiskidetasun Tratatu Orokorraren 18. artikuluaren esanetan, «**con sujeción a su legislación y de conformidad con el derecho internacional**, cada Parte otorgará a los nacionales de la otra **facili-dades** para la realización de actividades lucrativas, laborales o profesionales, por cuenta propia o ajena, **en pie de igualdad con los nacionales del estado de residencia o de trabajo** necesarias para el ejercicio de dichas actividades. La expedición de los permisos de trabajo y profesionales, por cuenta ajena será gratuita», Spainiako Auzitegi Gorenak bere sententzian aurkeztutako egoera bestelakoa delako ondiorria eramanez.

Edonola ere, 1870eko Tratatuaren indarreangotasunaren inguruko jurisprudentzia-errealitateak iraulketa berri bat ezagutuko du 2005. eta 2006. urteetan zehar, azkenean zenbait autonomia-erkidegotako Auzitegi Nagusiek Auzitegi Gorenaren jarrera, berandu bada ere, berea egin zutenean, nahiz eta ondorengo tratatuak hor mantendu⁴. Egoera horretan 1870. urteko Ezagutze, Bake eta Adiskidetasun Tratatuaren indarreangotasunaren inguruan errealitate araugilearen baitan zegoen gatazka behin betiko azaleratu eta espiniar jurisdikzioaren bata-suna kolokan jarri zen.

Laburtutako egitateei begira aurrikusgarria zen moduan, arlo politikoa ez da gatazka honetatik kanpo geratu eta hasieran aurrera eramandako ekimenak, gobernuaren kontrol-funtzioaren barnean, zenbait talde parlamentariok (Talde

3. Ikus, besteak beste, Galiziako Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren, ekainaren 23ko, 516/2004 Sententzia (Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. Sekzioa); Valentziako Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren, uztailaren 7ko, 190/2004 Sententzia (Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. Sekzioa).

4. Ikus, besteak beste, Valentziako Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren, urtarrilaren 26ko, 99/2005 Sententzia (Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. Sekzioa); Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiren, otsailaren 14ko, 10022/2005 Sententzia (Administrazioarekiko Auzien Sala, 2. Sekzioa).

Popularra eta Mista) aurkeztutako ekimen isolatuak izan baziren ere⁵, gerora Proposamen ez-legegile bati bide ematera iritsi ziren⁶. Kongresuko Kanpo Politikako Komisioaren baitan aho batez onartutako Proposamen ez-legegile honek:

(...) insta al Gobierno a que, ante la controversia surgida acerca de la interpretación del Tratado de reconocimiento, amistad y cooperación de 1870 con la República Oriental del Uruguay y las implicaciones de la legislación española y de las obligaciones de España con la Unión europea, así como de la diversa jurisprudencia española en esta materia, se aborde en el plazo máximo de cuatro meses conjuntamente con las autoridades uruguayas, en el marco de la comisión de alto nivel prevista en el Tratado general de cooperación y amistad de 1992, la cuestión del régimen de entrada, trabajo y residencia de los ciudadanos uruguayos mediante la aplicación de los criterios más favorables.

Proposamen ez-legegile horri jarraiki, bertan aipatzen zen Goi Mailako Komisioaren lehen eta bakarra izan den bilera antolatu zen 2006ko apirilean. Bertatik jakin zenaren arabera, bi gobernuak elkarri epe bat ematearen alde agertu ziren. Epe horren atzetik Estatuko Abokatutzak 2005eko otsailean Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salaren aurrean aurkeztutako helegiteareen aurrean, honen sententziaren zain geratzea zen helburua. Uruguaien partetik jarrera hau aurkezteak sortzen duen harridura alde batera utzita, epemuga konkreturik gabeko denbora honetan bi aldeek maila teknikoan lanean jarraituko zutela adierazi zuten.

Aipatutako epea aurrera zihoa inguruabar berri bat agertu zen orain arte azaldutako panorama horretan. Uruguaiko zenbait biztanle, auzitegietan aurkeztutako lan- eta erresidentzia-baimenengatiko demandetan, lehenengo, Estatuaren ondarezko erantzukizuna eskatzen hasiko ziren, beraien baimenak Gobernuak ukatu ondoren auzitegietan aldeko sententziak lortuz gero, kalte-ordainak jaso nahian⁷. Ikuspegি praktiko batetik aztertuta, hori gatazkaren behin betiko ebazpenaren aldeko presio-elementu berri gisa eratuko da. Modu horretan, bai Spainiako bai Uruguaiko autoritateen geroz eta ardura eza handiago horri aurre eginez.

2006ko irailaren 26ko datarekin Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Bosgarren Salak gai honetan sententzia emango du ebatziz 1870eko Ezagutze, Bake eta Adiskidetasun Tratatua ez dagoela indarrean, alde berdinek gai beraren inguruan ondoren sinatutako tratatuen zenbait xedapenekin batera-ezina delako eta, ondorioz:

5. Ikusi GNAO. Diputatuen Kongresua, D-176 zk., 2005/23/03koa, 170. or., Ekimena; GNAO. Diputatuen Kongresua, D-265 zk., 2005/29/09koa, 69. or., Gobernuaren Erantzuna; GNAO. Diputatuen Kongresua, D-227 zk., 2005/23/06koa, 499. or., Ekimena; GNAO. Diputatuen Kongresua, D-262 zk., 2005/26/09koa, 653. or., Gobernuaren Erantzuna; GNAO. Diputatuen Kongresua, D-338 zk., 2006/21/02koa, 309. or., Ekimena; GNAO. Diputatuen Kongresua, D-376 zk., 2006/27/04koa, 317. or., Gobernuaren Erantzuna.

6. Ikusi GNAO. Diputatuen Kongresua, D-179 zk., 2005/04/04koa, 9. or.; GNAO. Diputatuen Kongresua, D-195 zk., 2005/04/06koa, 11. or.; GNAO. Diputatuen Kongresua, 458, 2005/21/12koa, 32. or.; GNAO. Diputatuen Kongresua, D-317 zk., 2006/11/01ekoa, 10. or.

7. Ikusi besteak beste, Valentziako Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren, azaroaren 9ko, 2018/2005 Sententzia (Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. Sekzioa); Valentziako Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren, azaroaren 11ko, 1998/2005 (Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. Sekzioa).

(...) los nacionales de Uruguay, ni quedan equiparados a los ciudadanos de los Estados miembros de la Unión Europea en lo que hace al régimen jurídico que regula los derechos de residencia y trabajo en España, ni dejan de estar sujetos al régimen establecido en la Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre Derechos y Libertades de los Extranjeros en España y su integración Social...

Sententzia horrekin espainiar bide jurisdikzionalari amaiera ematen bazaio ere, gatazka ez da bertan behera geratu eta behe-mailako auzitegien obligazioa Auzitegi Gorenaren doktrinari jarraitza bada ere⁸, oraindik 2007. urtean gatazka honek ez ditu bere azkenak eman, arlo politikoan jazo diren hainbat ekimenek aditzera ematen dutenez. Horrela, bada, ezinbestekoa dirudi ikuspegi juridikotik auzitegi ezberdinaren lana azterzeak eta, batez ere, Nazioarteko Zuzenbideak honetan esateko duena azaltzeak; izan ere, espainiar ordenamenduan agortu ez den eta oraindik dirauen gatazka baten aurrean gaudelako.

2. Egitateen gaineko azterketa juridikoa

2.1. Behe-mailako auzitegien sententzienguruko zenbait ohar

2.1.1. Nazioarteko Zuzenbidetik zenbait ohar

Auzitegi hauek hain diferenteak diren jarrerak hartzearen arrazoiak ulertu ahal izateko ezinbestekoa dugu aztertza Nazioarteko Zuzenbidetik eratortzen den arau baten nolako aplikazioa egin duten. Auzitegi Nagusi hauek guztiekin horren inguruan euren ebazpenak oinarritu baldin badituzte ere, ez dirudi horrek ezer konpondu duenik, are gehiago, azaleratu diren emaitzak erabat kontrakoak izan dira kasuak zein autonomia-erkidegotan ebatzi diren arabera. Arau hau Tratatu Zuzenbideari buruzko Vienako Hitzarmena dugu, 1969ko maiatzaren 23ko, eta, bereziki, bertan topatzen dugun 30. artikulua, non gai beraren inguruan aritzen diren segidako tratatuen aplikazioa arautzen den.

30. Aplicación de tratados sucesivos concernientes a la misma materia. 1. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 103 de la Carta de las Naciones Unidas, los derechos y las obligaciones de los Estados partes en tratados sucesivos concernientes a la misma materia se determinarán conforme a los párrafos siguientes.

2. Cuando un tratado especifique que está subordinado a un tratado anterior o posterior o que no debe ser considerado incompatible con ese otro tratado prevalecerán las disposiciones de este último.

3. Cuando todas las partes en el tratado anterior sean también partes en el tratado posterior, pero el tratado anterior no quede terminado ni su aplicación suspendida conforme al artículo 59, el tratado anterior se aplicará únicamente en la medida en que sus disposiciones sean compatibles con las del tratado posterior.

4. Cuando las partes en el tratado anterior no sean todas ellas partes en el tratado posterior:

a) en las relaciones entre los Estados partes en ambos tratados se aplicará la norma enunciada en el párrafo 3:

8. Ikusi besteak beste, Valentziako Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren, maiatzaren 4ko, 723/2007 Sententzia (Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. Sekzioa); Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren, ekainaren 13ko, 540/2007 Sententzia (Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. Sekzioa); Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren, ekainaren 29ko, 611/2007 Sententzia (Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren, 1. Sekzioa).

b) en las relaciones entre un Estado que sea parte en ambos tratados y un Estado que sólo lo sea en uno de ellos, los derechos y obligaciones recíprocos se regirán por el tratado en el que los dos Estados sean partes.

5. El párrafo 4 se aplicará sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 41 y no prejuzgará ninguna cuestión de terminación o suspensión de la aplicación de un tratado conforme al artículo 60 ni ninguna cuestión de responsabilidad en que pueda suceder un Estado por la celebración o aplicación de un tratado cuyas disposiciones sean incompatibles con las obligaciones contraídas con respecto a otro Estado en virtud de otro tratado.

1870eko Tratatuaren inguruan sortutako gatazkaren funtsezko arrazoia ondoren sinatutako akordio sorta baten existentzia litzateke, eta horien artean aurkitu ditzakegu 1961eko abenduaren 18ko Nota Elkarrukea eta 1992ko uztailaren 23ko Espainia eta Uruguai arteko Kooperazio eta Adiskidetasun Tratatu Orokorra. Bi horiek aurrekoa espresuki indargabetu ez arren, haren edukia moduren batean aldatzen dute. Inguruabar honek arrazoizko modu batean, lehen aipatutako xedapena aplikatzera eraman ditu auzitegiak, baina jarrera horrek Ŧabarduraren baten beharra du. Izan ere, 30.3 artikulu honen aplikazioa sententzia ezberdinaren testutik erator daitekeen erraztasun hori baino konplexuagoa baita. Bestelako gogoetarik gabe sententziek artikulu horrek dioena aplikatuz, «[e]l Tratado anterior se aplicará únicamente en la medida en que sus disposiciones sean compatibles con las del Tratado posterior». Dena den, xedapen horren itxurazko erraztasunaren atzetik egitura araugile konplexua ezkutatzen da, beste artikuluetara igorpen eta eragorpen ugariz beteta, gai beraren inguruan segidako tratatuuen aplikazioa lortzeko modu progresiboan argitu behar direnak (López Martín, 2002: 105). Zentzu horretan, lehenik eta behin, Vienako Hitzarmenaren 54. artikuluak dioenera jo beharko genuke⁹, bertan jasotzen baitira tratatuuen amaierari dagozkion jarraibideak espresuki ondorengo tratatu batean edota horietatik kango beste modu batean hori izan bada aldeek zuten borondatearen kasua. Hori gure kasua ez dela ikusita, bigarren pauso moduan 59. artikuluak¹⁰ jasotzen dituen isilbidezko amaiera suposturen batean gauden aztertu beharko litzateke, bai ondorengo tratatuetafik ideia hori eratortzerik zegoelako, bai aldeen borondatea beste bide batetik hori zela ondorioztatzeagatik edota tratatu ezberdinaren xedapenak bateraezinak direla ondorioztatzeagatik aplikazio bateratua ezinezkoa bihurtuz. Eta horrela izatekotan ezinezkoa genuke, sententziek defendatzen dutena kontraesanez, Vienako Hitzarmenaren 30. artikulua aplikatzea; izan ere, horretarako behar dugun

9. 54.Terminación de un tratado o retiro de él en virtud de sus disposiciones o por consentimiento de las partes. La terminación de un tratado o el retiro de una parte podrán tener lugar:

- a) conforme a las disposiciones del tratado, o
- b) en cualquier momento, por consentimiento de todas las partes después de consultar a los demás Estados contratantes.

10. 59. Terminación de un tratado o suspensión de su aplicación implícitas como consecuencia de la celebración de un tratado posterior. 1. Se considerará que un tratado ha terminado si todas las partes en él celebran ulteriormente un tratado sobre la misma materia y:

- a) se desprende del tratado posterior o consta de otro modo que ha sido intención de las partes que la materia se rija por ese tratado; o
- b) las disposiciones del tratado posterior son hasta tal punto incompatibles con las del tratado anterior que los dos tratados no pueden aplicarse simultáneamente.

2. Se considerará que la aplicación del tratado anterior ha quedado únicamente suspendida si se desprende del tratado posterior o consta de otro modo que tal ha sido la intención de las partes.

aurresuposturik ez genukeelako, hau da, gai beraren inguruan indarrean dauden bi tratatu ezberdin. Beraz, bakarrik galdera horri ezezko erantzuna eman beharko genioke xedapen horrek jasotzen dituen arauen aplikazioaren aurrean. 1992ko uztailaren 23ko Tratatu Orokorraren 18. artikuluan jasotzen den aldeen esan-bidezko borondateak aditzera ematen duenez, helburuak bateragarriak diren heinean akordio guztiak indarrean mantentzea zela dirudi, baina edozein kasutan bateragarritasun edo bateraezintasun hori azaleratzek Vienako Hitzarmenaren 30. artikuluko 3. paragrafoaren aplikazioak eskatzen duen lan bera galdatzen du: xedapen ezberdinen terminoak interpretatza

Edonola ere, horretara iritsi baino lehen 30. artikuluko bigarren paragrafoak beste behar bati erantzutea galdatzen du. Kasu honetan, tratatuen arteko erlazio-klausulen existentzia aztertzea. Izan ere, horrelakoren bat topatuz gero, horretara egokitutu beharko bailitzateke aplikazioa. Zentzu horretan, Remiro Brotos irakas-leak klausula horietako 5 mota identifikatu ditu, esklusioa/baztertzea, lehentasuna, harrera, mendekotasuna edota bateragarritasuna finkatzen duten (Remiro, et al., 1997: 394). Kasu honek azaleratzen duen duda 1992ko Tratatu Orkorren 18. artikulotik dator, bertan esaten baita:

(...) sin perjuicio de las disposiciones establecidas en el presente Tratado, las Partes acuerdan que, en lo que no fuere incompatible con el mismo, mantienen plenamente vigentes los convenios celebrados con anterioridad.

Aurreikuspen honek gertutasun handia du auzitegiak etengabe erreferentzia egiten dioten Vienako Hitzarmenaren 30.3 artikuluan jasotakoarekin, differentzia nabarmen batekin: kasu honetan aldeen borondatearen aurrean aurkitzen garela eta ez tratatuetatik kanpo ekartzen dugun arau baten aurrean. Bide honetan la-gungarri izan daiteke Vienako Hitzarmenak berak bere 31.2 artikuluan interpretazioari buruz jasotakoa aplikatuz tratatuen hitzaurrera jotzea, non adierazten den bere arrazoia garbi utzik lukeela:

(...) la exigencia de completar mediante un Tratado de carácter general que abarque lo dispuesto en virtud de Acuerdos específicos en vigor o que se concluyan en base a este Tratado, y en cumplimiento de los términos del Acta de Bases del Tratado de Cooperación y Amistad entre Uruguay y España.

Horri jarraituta, badirudi aldeen borondatea jarraitzen zuzentzen gaituen nolabaiteko klausularen aurrean aurkitzen garela. Hala ere, irakurritakotik ez da batere erreza jakitea zein motatako klausularen aurrean egongo ginatekeen. Badirudi bateragarritasunaren eta osagarritasunaren artean kokatzen den zerbaiten inguruan egongo ginatekeela, eta horrela balitz, Vienako Hitzarmenaren 30. artikuluko bigarren paragrafoan kokatuko ginateke (López Martín, 2002: 105), bide batez, tratatu ezberdinen artean lehentasun-harremanei uko egitearen ideia garbi utziz (Remiro et al., 1997: 394-395). Hala ere, ez litzateke zentzugabekoa izango lehentasun-klausula baten aurrean egotea. Horrela izanez gero, klausula hori Vienako Hitzarmenaren 30.3 artikuluko *lex posterior* erregimenaren barne koka-tzeagatik, tratatuen amaieraren testuinguruan kokatzeagatik edota aldeen borondatearen autonomiaren aurrean inolako eraginkortasunik ez izateagatik, 30.2 artikulutik kanpo kokatuko litzateke (López Martín, 2002: 142 eta hur.). Azken aukera horren arabera uler daiteke auzitegiak Vienako Hitzarmenaren 30.3

artikuluari egiten dioten erreferentzia zuzena; izan ere, kontrako kasuan ulertu beharko genuke ezen epaileek artikulu horren aplikazioa egiteko jarraitu duten bide zuzen horrek nazioarteko zuzenbidearen inguruan espaniar auzitegiak duten ezagutza faltari erantzuten diola, beste hainbat adibidetan garbi geratu den moduan.

Ohar metodologikoak eta auzitegiak jarraitu dituzten bide propioak alde batera utzita, mahai gainean jarraitzen duen arazoa bigarren arlo batera lerratuko dugu: tratatu ezberdinan jasotako terminoen interpretazioa, horren bitartez argitu ahal izateko ea tratatu ezberdinen arteko bizikidetza posible den, bateragarriak edo bateraezinak diren, Vienako Hitzarmenaren 30.3 artikuluko *lex posterior derogat priori* maxima aplikatu ahal izateko, edota hitzarmen beraren 59. artikuluaren arabera 1870eko tratatua amaituta dagoen jakiteko. Kasu bakoitzean garbi geratzen da interpretazioaren xedea eta objektua ezberdinak direla.

Vienako Hitzarmenaren 30.3 artikuluko aplikazioa eta tratatuak bateragarriak diren ala ez zehaztea ez da lan erreza. Tratatuinterpretazio-arau orokorrak alde batera uzterik ez dago ariketa honetan eta, beraz, bertan agertzen diren xedapenen zentzu eta norainokotasuna finkatzeari eta zehazteari lehentasuna eman beharko zaio, eta horrela tratatueta jasotako estatuen arteko *consensusa* bere garaian zein izan zen izan behar da helburu. Lan honetan, beraz, hiru irizpide kontuan hartu behar dira: lehenik eta behin, testua bera estatu kideen kontentsuaren adierazpen autentiko gisa; bigarrenik, estatu kideen borondateen elementu subjektiboa eta, azkenik, tratatu xedea eta helburua bera (Gonzalez *et al.*, 2002: 307-309). Gure kasu honetan bateragarritasun eta bateraezintasunen identifikazio-lanak aipatutako lehenengo eta azken interpretazio-elementuei lehentasuna ematea aholkatzen du bigarrenaren aurretik; izan ere, bilatzen den helburuak justifikatzen baitu irizpide objektiboei lehentasuna ematea subjektiboen aurrean (López Martín, 2002: 105), zeren, aurretik ikusi ahal izan dugun moduan, aldeen borondatea ezin izan baita argitu baten xedapenak beste tratatuaren aplikazioa eragozten zuen ala ez aztertzean.

Puntu honetan, beraz, argitu gabe dago dena; izan ere, ezinbestekoa suertatzen zaigun interpretazio-lan horrek bi tratatuak aldi berean aplikatzea posible dela ondoriozta baitezake bateragarriak direla ikusiz gero. Baina, interpretazio-lan horrek ere ondoriozta dezake ezen bateraezintasunik badagoela eta, beraz, batak bestearren gainetik lehentasuna lukeela. Zentzu horretan, bere garaian Vienako Hitzarmenaren erredakzio komitearen presidentea zen M. Yasseen-ek esan bezala, komenigarria litzateke honako hau geratzea:

(...) la mera circunstancia de que lo dispuesto en el tratado posterior pudiera divergir de lo establecido en el anterior no implica, necesariamente, incompatibilidad (A/CONF.39/C.1/15).

Beraz, egin beharreko interpretazio-lanak markatuko du zein den Uruguaiako etorkinei aplikagarri zaien araudiaaren errealitatea. Interpretazio harmonizatzairen baten ondorioak testu ezberdinen bateragarritasuna suposa zezakeen, eta kontrako jarrerak, berriz, testu ezberdinen bateraezintasun posiblean intzidentzia izango zukeen. Azkenean, Vienako Hitzarmenaren 30. artikuluaren aplikazioa, kasu honi dagokionez, erabiliko diren interpretazio-irizpideetara irekita egongo da erabat. Hemen topa daiteke auzitegi ezberdinen sententziengatik artean sortutako diferentzia

hain nabarmenen funtsa: zenbait auzitegik interpretazio-lan horri harmonizazioaren ikuspegitik aurre egin diote; besteek, aldiz, bateraezintasuna irizpide zutela. Horren aurrean berriz ere argi geratu da ezen arauek ez dutela bizitza propiorik eta benetan bere funtsa araua interpretatzeten duenaren esku geratzen dela.

2.1.2. *Espainiar ordenamenduaren barne-legedian oinarritutako interpretazio-proposamen bat*

Esku artean dugun kasu konkretu honi helduz eta auzitegiek erabili dituzten hitzarmen ezberdinetan aurkitzen diren terminoen gain arreta jarriz, testu hauen bateragarritasun edo bateraezintasunaren identifikaziora zuzendutako interpretazio-lanak espainiar barne-ordenamenduko begiruneari zuzendutako erreferentziok eta 1992ko Hitzarmenaren zenbait termino konkretu —bereziki “*facilidades*” eta “*en pie de igualdad con los nacionales del Estado*”— finkatzeari eutsi behar dio. Zentzu horretan, eta ordena kronologiko garbi bati jarraitzearen, lehenik eta behin 1961eko Nota Elkartrukeari eutsi beharko genioke, aztertuz zeintzuk izan daitezkeen horren ondorioak 1870eko Tratatuaren. Zentzu horretan komeni da argitzea Vienako Hitzarmenaren 13. artikuluak jasotzen duenari begira, Nota Elkartrukea Estatuen borondatea plazaratzeko instrumentu juridikotzat jotzen dela eta, ondorioz, tratatuen oinordetza-terminoetan hitz egitea onargarri bihurtzen dela. Instrumentu horretan jasotakoak eta lan honetan egitateetan islatuta geratu denak ez bide diote uzten zirrikitu handirik Uruguaiako herritar bati bisaturik gabe Espainian sartzeko momentuan; izan ere, bertan jasotzen den moduan, bakarrik laurogeita hamar egunetik beherako sarreretan edota langileria diplomatikoaren kasuetan baimen hau ez da galduko. Horri atzerritartasun-legeriari blokean egindako igorpena gehitzen badiogu, horrek ondorioztatzen garamatza ezen, nahi bai, baina zaila dela bi instrumentu horien arteko interpretazio bateragarria topatzea eta, beraz, arlo honi dagokionez, 1870eko Tratatuaren 8. artikulua ezingo litzatekeela aplikatu bateraezintasun horiek direla eta. Edonola ere, konklusio horrek ez luke interpretazio-lana agortuko; izan ere, 1992ko Tratatu Orokorrak 1870eko Tratatuaren dituen eraginak aztertzea ezinbestekoa suertatzen baita, beronen eraginak, gure aburuz, orain aipatutako egoerari iraulketa ematen baitio.

Azken instrumentu horretan, espainiar barne-legediaren erreferentzia mantentzen bada ere, dagoeneko ez da hain modu inperatiboan jasotzen, generikoagoan baizik, eta momentu orotan maila berean aipatuz hura Nazioarteko Zuzenbidearekin bat etorriko dela. Aldi berean, “*facilidades*” terminoaren interpretazioak ez dirudi batera pazifikoak; izan ere, Uruguaiako herritarrei modu bateko edo besteko tratu privilegiatu bat eskaintza bezala ulertzea badago ere, hori errealitatean konkretuki zertan datzan zaila delako zehaztea. Zenbait auzitegik ez dute inolako arazorik aurkitu Uruguaiako herritar horiei lan- eta erresidentzia-baimenak esleitzeko orduan lehentasunezko tratu bat aplikatzeko, betiere, eta barne-ordenamenduko legedia errespetatuz, bereziki nazioaren enplegu-egoera. Hori, errealitatean, eskubide horiek ezerezean uztea ere bazen, zeren suposatzen baitzuen Uruguaiako herritar bati baimenak emateko lan-eskaintza bat egon behar zela, eta, gainera, lan-eremu horretan espainiar naziokotasuneko herritarrik ez egotea enplegu eske. Beste zenbait auzitegik, berriz, “*facilidades*” hori beste aipamen batekin lotu behar zela ulertuko dute, “*en pie de igualdad con los nacionales del Estado*”, bertatik eratorriz etorkin horiek Europar Batasuneko herritarrekin parekatu behar zirela jarduera

hauei dagokienez. Jurisprudentzian indarrean zeuden bi jarrera horien artean interpretazio-elementuak aztertzea ezinbestekoa dugu.

